



ASFEDEBI

**Bizkaiko Kirol
Federakundeen Elkartea
Asociación de Federaciones
Deportivas de Bizkaia**

KIROL ETXEA

Martin Barua Picaza, 27
48003 BILBAO

Tel: 94.442.39.60
Fax: 94.442.10.12
email: asfedebi@asfedebi.eus
www.asfedebi.eus

2023 - 2025

HARROBI
EUSKARAREN
AITORTZA-DIPLOMA
DIPLOMA DE RECONOCIMIENTO
DEL EUSKERA



BIZKAIKO KIROL FEDERAKUNDEEN ELKARTEAREN **HAUTESKUNDE ARAUDIA** **(A.S.F.E.D.E.B.I.)**

HAUTESKUNDE PROZESUA-2026

1. artikulua - Aldez aurretikoa

1.1 Gure Estatutuetan ezarritakoarekin bat etorriz, Zuzendaritza Batzordea osatzen duten kargudunak, presidentea barne, Elkartearen batzar Nagusian aukeratuko dira. Lau (4) urtez aginduko dute, Estatutuetan jasotzen den kargu-uzteko baliozko edozein arrazoi dela eta beren beregi balio gabetzen denean izan ezik; hala denean, mugarik izan gabe berriz hautatu ahal izango da.

1.2. Hautaketa Batzar Nagusiko kideen bozketa libre, zuzen eta sekretu bidez egingo da, zerrenda irekien bidez atera diren hautagaiak aurkeztu ondoren. Zerrendaren buru Zuzendaritza Batzordeko presidente izateko proposaturiko pertsona izango da eta ondoren hautagaitzako gainerako kideak izateko proposaturiko beste kargudunak izendatuko dira. Ezin izango da postaz bozkatu, ez eta ordezkari baten bidez ere.

1.3. Bizkaiko Kirol Federakundeetako Elkartearen (aurrerantzean ASEFEDEBI) Zuzendaritza Batzordea eta presidentea aukeratzeko hauteskunde-prozesuak hauteskunde-araudi honetan ezarritakoa bete beharko du Elkartearen Batzar Nagusiak onetsi ondoren. Horrez gain, Elkartearen Estatutuetan, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Legean ezarritakoa bete beharko du.

2. artikulua - Hauteskunde-prozesuaren hasiera

2.1. Agintaldiaren epea amaitzen denean edo, Estatutuen arabera, beste hauteskunde-prozesu bat hastea eragiten duen beste edozein egoera ematen denean eta Estatutu berriak onetsi eta Eusko Jaurlaritzako Elkarteen erregistroan jaso ondoren, Federazioko presidentek Batzar Nagusia iragarriko du hauteskunde-araudi berria onesteko edo, hala dagokionean, indarrean dena berresteko eta Hauteskunde Batzordeko kide berriak izendatzeko.

2.2. Behar besteko oinarriak izanik presidentek kasuan kasuko hauteskunde-prozesua hasteko Hauteskunde Batzorderako hitzordua jarri ezean, Batzar Nagusiko kideen % 5 gutxienez osatzen duten kideen taldeak Hauteskunde Batzorderako deialdia egin ahal izango dute hauteskunde-izapideak hasteko.

2.3. Artikulu honetako 5. atalean azaltzen den Hauteskunde Batzorderako deialdia egiteko batzordea Federazioaren azken Batzar Nagusian izendaturikoa izan beharko da, lau (4) urtez, horren aurreko denboraldian izandakoaren (iraupen berekoa) txanda hartuz. Lau urte bete baldin badira eta



ASFEDEBI

**Bizkaiko Kirol
Federakundeen Elkartea
Asociación de Federaciones
Deportivas de Bizkaia**

KIROL ETXEA

Martin Barua Picaza, 27
48003 BILBAO

Tel: 94.442.39.60
Fax: 94.442.10.12
email: asfedebi@asfedebi.eus
www.asfedebi.eus



Hauteskunde Batzorde berria aukeratu ez bada, kargua uzten dutenek Batzorde berria izendatu arte aginduko dute.

2.4. Presidenteak eta Zuzendaritza Batzordeak hauteskunde-prozesu berria hasteagatik kargua uzten duten egunetik hasita, bi organoek jardunean jarraituko dute.

2.5. Presidenteari egokituko zaio azken Batzar Nagusian izendaturiko Hauteskunde Batzordea elkartzea, izendapenetik hasita gehienez ere BOST eguneko epean, organo horren bidez hauteskunde-prozesua hasteko behar diren erabakiak hartzeko. Hala egin ezean, aukeraturiko batzordea hauteskunde-prozesua hasteko elkartu ahal izango da izendaturiko edozeinek proposatuta.

3. artikulua - Hauteskundeetarako deialdia

3.1. Batzar Nagusian izendatzen den Hauteskunde Batzordea osatu eta batzorde horrek hauteskundeetarako deialdia egin beharko du hauteskunde-prozesua hasteko behar diren erabakiak hartuz, Federazioko presidenteak horretarako deialdia egin eta gehienez ere BOST (5) eguneko epean.

3.2. Hauteskundeen deialdiak, gutxienez, honako hau ere adostu beharko du:

- a) Elkarteko federazioen hauteskunde-errola berria, Hauteskunde Batzordeak berak behin-behinean onetsitakoa.
- b) Hauteskunde Batzordeak onetsitako hauteskunde-egutegia.
- c) Hauteskunde Batzordeak onetsitako bozkatzeko txartelen, gutun-azalen, hautagaien inprimakien eta antzeko agirien eredu ofizialak.
- d) Hauteskunde Batzordearen osaera kide titularrak eta ordezkoen zerrenda osoa barne, baita presidentearen eta idazkariaren izendapenak ere.

3.3 Hauteskundeen deialdia egin ondoren, Elkartearen iragarki-taulan eta jendeak ikusteko moduan jarriko dira deialdia, behin-behineko hauteskunde-errola, hauteskunde-egutegia eta hauteskunde-araudia.

Halaber, deialdia eta agiri osagarriak posta elektronikoaz bidaliko dira Elkarteko federazio guztietara, haren berri izan dezaten. Baita web orrian (www.asfedebi.eus) argitaratu ere.

3.4. Behin-behineko errola hauteskunde-prozesuaren deialdia egiten den egunean Elkartearen parte diren federazio guztiek osatuko dute.

4. artikulua - HAUTESKUNDE BATZORDEA

- 4.1. Hauteskunde Batzordeak ondorengo zereginak izango ditu:
- Hautesleen errola eta hauteskunde-egutegia onestea
 - Aurkeztutako hautagaiak izendatzea eta argitaratzea
 - Hauteskunde Mahaia izendatzea



ASFEDEBI

**Bizkaiko Kirol
Federakundeen Elkartea
Asociación de Federaciones
Deportivas de Bizkaia**

KIROL ETXEA

Martin Barua Picaza, 27
48003 BILBAO

Tel: 94.442.39.60
Fax: 94.442.10.12
email: asfedebi@asfedebi.eus
www.asfedebi.eus



- Aurkezten diren aurkaratze, erreklamazio eta/edo eskari guztiak ebatzea, baita Hauteskunde Mahaiaren erabakien aurka jartzen diren helegite guztiak.
- Hauteskundeei eta horien emaitzei zuzenean eragiten dien edozein kontu.

4.2. Hauteskunde Batzordeak hartzen dituen erabakien aurka egin ahal izango da jurisdikzio arruntaren aurrean.

4.3. Hauteskunde Batzordea HIRU (3) kidek osatuko dute eta hauteskunde-prozesua bultzatzeaz eta behar bezala garatzen dela zaintzeaz arduratuko da.

4.4. Hauteskunde Batzordearen jardunak LAU (4) urte iraungo du; hala ere, Batzar Nagusiak batzordea kargutik kendu eta beste bat izendatu ahal izango du epe hori amaitu aurretik.

4.5. Hauteskunde Batzordeko kideak eta ordezkioak Batzar Nagusiak aukeratuko ditu, borondatez aurkezten diren Elkarteko federazioen artean, lau urteko agintaldiko ekitaldi berri bakoitzerako hauteskunde-prozesua hasi aurretik egiten den azken Ohiko Batzar Nagusian.

4.6. Hautagai aurkeztuko direnak inola ere ezin izango dira izan Hauteskunde Batzordearen parte; halako egoerarik emanez gero izendaturiko Hauteskunde Batzordeko kideren baten kasuan, horrek kargua utzi eta izendaturiko ordezkioak hartu beharko du haren lekua.

4.7. Borondatezko hautagai nahikorik egon ezean, hautagai gisa hauteskundean parte hartzeko borondatearik ez duten Elkarteko kide guztien artean izendatuko dira zozketa bidez.

4.8. Edonola ere, Hauteskunde Batzordeko presidente eta idazkari gisa jardungo dute izendatuen artean adinez nagusia eta adinez gazteena direnek, hurrenez hurren.

5. artikulua - HAUTESKUNDE MAHAIA

5.1. Hauteskunde Batzordeak, hautagai izango ez diren hautesleen artean zozketa egin ondoren, HIRU (3) kidez osaturiko Hauteskunde Mahaia izendatuko du, baita beste hiru ordezkio ere, eta adinez nagusia eta gazteena direnak presidentea eta idazkaria izango dira, hurrenez hurren.

5.2. Hauteskunde Mahaia ondorengo eginkizunak izango ditu:

- Bozketa behar bezala burutzen dela zaintzea.
- Hautesleen nortasuna eta botoa eman dezaketela egiaztatzea.
- Botoak zenbatzea, bozketa amaitu ondoren, eta Bozketaren inguruko beste edozein kontu ebatzea.

5.3. Hauteskunde Mahaiko kideek hitz egin eta botoa emateko eskubidea izango dute, eta haien erabakien artean berdinketa emanez gero, presidentearen botoak ebatziko du.

5.4. Hauteskunde Mahaiko idazkariak Mahaia osatzeko akta idatziko du, Mahaiko kide guztiek izenpetuko dutena.



ASFEBEBI

**Bizkaiko Kirol
Federakundeen Elkartea
Asociación de Federaciones
Deportivas de Bizkaia**

KIROL ETXEA

Martin Barua Picaza, 27
48003 BILBAO

Tel: 94.442.39.60
Fax: 94.442.10.12
email: asfedebi@asfedebi.eus
www.asfedebi.eus



HARROBI

EUSKARAREN
AITORTZA-DIPLOMA
DIPLOMA DE RECONOCIMIENTO
DEL EUSKERA



KUDEAKETA AURRERATUARI
DIPLOMA
A LA GESTION AVANZADA

6. artikulua - HAUTESKUNDE PROZESUA

6.1. Hauteskundeen deialdia egin ondoren, HIRU (3) egun balioduneko epea hasiko da Hauteskunde Batzordean erroldaren inguruko erreklamazioak aurkezteko.

6.2. Epe hori igaro ondoren, Hauteskunde Batzordeak gehienez ere BI (2) egun balioduneko epean egindako erreklamazioak ebatzi eta hartutako erabakia jakinaraziko die errekurtsogileei.

6.3. Erroldaren aurkaratzeak ebatzi edo aurkaratzerik aurkeztu gabe epea amaitzen denean, ZAZPI (7) egun naturaleko epea hasiko da hautagaitzak aurkezteko.

6.4. Presidente eta Zuzendaritza Batzorderako hautagaiak zerrenda irekien bidez aurkeztu (behealdean behar bezala irakur daitekeen sinadura egingo da eta Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia adieraziko da) eta presidente hautagaiaren sinatutako idazki bidez bideratuko dira ezarritako epean.

Idazkia norberak aurkeztu beharko du edo posta ziurtatu bidez bidali hartu-agiriarekin, aipaturiko epean, igorlearen izena eta helbidea adieraziz eta gutun-azalean honako hau jarritz:

“Presidente eta Zuzendaritza Batzorderako hautagaitza”
HAUTESKUNDE BATZORDEA-ASFEBEBI
Martin Barua Picaza kalea, 27.
48003-BILBO

6.5. Hautagaitza osatuko duten kideen kopurua bakoitia izango da, hau da, Zuzendaritza Batzorderako Estatutuek adierazten duten gutxieneko kide kopurua; hortaz, gutxienez, presidente bat, presidenteorde bat, idazkari bat, diruzain bat eta batzordekide bat izango dira. Gehienez ere 11 batzordekide gehitu ahal izango dira. Hautagai guztiak Elkarteko federazioen ordezkariak izan beharko dira.

6.6. Hautagaitzak aurkezteko epea amaitu eta egun baliodun batera hautagaien behin-behineko zerrendak argitaratuko dira.

6.7. Hautagaien behin-behineko zerrendak ASFEBEBIren lokaletan jarriko dira erakusgai BI (2) egun baliodunetz hautagaitzak aurkezteko epea amaitu ondoren.

6.8. Hautagaitzak aurkezteko epea amaitu ondoren beste HIRU (3) egun balioduneko epea hasiko da aurkezturiko hautagaitzen aurka egiteko.

5.9. Epe hori igaro ondoren, Hauteskunde Batzordeak erreklamazioak ebatziko ditu gehienez ere BI (2) egun balioduneko epean eta hartutako erabakiaren berri emango die errekurtsogileei. Behin betiko hautagaitzak argitaratuko dira eta araudi honetan ezarritakoaren arabera hauteskunde-mahaiaren osatuko da.



ASFEBEBI

**Bizkaiko Kirol
Federakundeen Elkartea
Asociación de Federaciones
Deportivas de Bizkaia**

KIROL ETXEA

Martin Barua Picaza, 27
48003 BILBAO

Tel: 94.442.39.60
Fax: 94.442.10.12
email: asfedebi@asfedebi.eus
www.asfedebi.eus



HARROBI

EUSKARAREN
AITORTZA-DIPLOMA
DIPLOMA DE RECONOCIMIENTO
DEL EUSKERA



6.10. Horren ostean, ondorengo BOST (5) eta HAMAR (10) egun baliodunen artean egun bat zehaztuko da Batzar Nagusia egiteko eta han bozketa burutzeko.

6.11. Hauteskondeak egin ondorengo egun baliodunean hauteskondeen behin-behineko emaitzak argitaratuko dira eta HIRU (3) egun balioduneko epea hasiko da behin-behineko emaitzen aurka egiteko.

6.12. Epe hori amaitu ondoren, Hauteskunde Batzordeak erreklamazioak ebatziko ditu BI (2) egun balioduen buruan eta interesdunei hartutako erabakia jakinarazi eta presidentea eta ASFEBEBIren Zuzendaritzako Batzordeko kide berriak izendatuko dira. Hori guztia Elkartearen iragarri-taulan argitaratu beharko da, baita webgunean ere.

7. artikulua - PRESIDENTE EDO ZUZENDARITZA BATZORDEKO KIDE IZATEKO HAUTAGAITZARAKO BALDINTZAK

7.1. Presidentea eta Zuzendaritza Batzordea hautatzeko bozketa egunean adinez nagusia izatea.

7.2. Administrazio-egoitza Bizkaian izatea.

7.3. Epailearen erabaki irmoaren bidez ezgaitzat jo ez izana.

7.4. Hautagaia kargurako gaitasunik gabe uzten duen kirol arloko diziplinazko zehapen larriren baten mende ez egotea.

7.5. Hautagaitza aurkeztea araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritz.

7.6. Hauteskunde Batzordeko kide ez izatea, ezta Hauteskunde Mahaikoa ere.

7.7. Epailearen erabaki irmoaren bidez kargu publikorako gaitasunik ez izatea dakarren zigorrik ez izatea.

7.8. Aurreko baldintzez gain, hautagaiak ASFEBEBI elkarteko federazioren baten ordezkariak izan behar dute eta horretarako, Hauteskunde Batzordeak bere garaian onetsiko duen ereduaren araberrako ziurtagiri egokia aurkeztu beharko dute.

8. artikulua - HAUTESKUNDEETARAKO BATZAR NAGUSIA

8.1. Batzar Nagusiaren lehenengo deialdia Kiroletxean izango da (Martin Barua Picaza kalea, 27, Bilbo) edo Hauteskunde Batzordeak zehazten duen lekuan, egunean eta orduan. Bigarren deialdia egun eta leku berean baina ordu erdi beranduago egingo da eta ondorengo eguneko gaien zerrenda izango du.



ASFEDEBI

**Bizkaiko Kirol
Federakundeen Elkartea
Asociación de Federaciones
Deportivas de Bizkaia**

KIROL ETXEA

Martin Barua Picaza, 27
48003 BILBAO

Tel: 94.442.39.60
Fax: 94.442.10.12
email: asfedebi@asfedebi.eus
www.asfedebi.eus



1. Hauteskunde Mahaia osatzea.
2. ASFEDEBIren presidentea eta Hauteskunde Batzordea aukeratzea.
 - a) Hautagaitzak aurkeztea eta defendatzea
 - b) Bozketa
3. Hauteskunde Mahaiak emaitzen behin-behineko irakurketa egingo du.
4. Behin-behinean hautaturiko hautagaitzako presidentearen esku-hartzea.

8.2. Lehenengo deialdian Batzar Nagusiaren eraketa baliozkoa izango da kideen erdia gehi bat elkartzen direnean. Bigarren deialdian bertaratutako en edozein kopuru nahikoa izango da. Batzar nagusian botoa ezin izango da eskuordetu.

8.3. Horretarako, kideak Hauteskunde Batzordearen aurrean egiaztatu beharko duten haien burua Nortasun Agiri Nazionala edo norbere burua identifikatzeko antzeko beste agiri bat erakutsiz, baita ordezkatzeko duen federazioko idazkariak eginiko ziurtagiria ere, presidentek ontzat emandakoa. Ziurtagiri horretan Elkarteko federazioaren ordezkaria denaren izena azaldu beharko da.

8.4. Jarraian Hauteskunde Mahaia osatuko da. Bilkuretan idazkari nagusiak eta, egonez gero, Federazioko aholkulari juridikoak lagunduko dute.

8.5. Hauteskunde Mahaiko presidentek bilkura hasten duenean, hautagaitzak aurkeztuko dira. Horretarako, bozkatu aurretik, presidente izateko hautagai bakoitzak bere programa azalduko du Batzar Nagusian, asko jota HAMAR (10) minutuz.

9. artikulua - BOZKETA

9.1. Ondoren bozketa egingo da. Hauteskunde Mahaiko presidentek, ordezkaturiko kirol modalitateen ordenamendu alfabetikoan, bozkatzeko eskubidea duten federazio bakoitza izenez deituko du, federazio horietako ordezkariak hurbildu eta eskubidea balia dezaten.

9.2. Hautesle bakoitzak presidentea eta Hauteskunde Batzordea aukeratzeko txartel egokia emango dio Hauteskunde Mahaiko presidenteari. Horrek Hauteskunde Mahaian horretarako jarritako hautestontzi bakarrera botako du.

9.3. Lehenengo txanda amaitu ondoren eta bost minutu pasata, Hauteskunde Mahaiko idazkariak lehenengo txandan eskubidea baliatu ez duten hautesle guztiak berriz ere izenez deituko ditu, haiek nahi izanez gero edo beranduago heltzeagatik, bozka dezaten.

Boto bakoitzaren ondoren idazkariak erroldaren zerrendan adieraziko ditu bozkatzeko eskubidea izango dutenak.

9.4. Federazioak bozkatzeko eskubidea baliatu ondoren, ezin izango du berriz bozkatu aurrekoaren antzeko ziurtagiria duen beste pertsona bat agertu bada ere.



ASFEDEBI

**Bizkaiko Kirol
Federakundeen Elkartea
Asociación de Federaciones
Deportivas de Bizkaia**

KIROL ETXEA

Martin Barua Picaza, 27
48003 BILBAO

Telf: 94.442.39.60
Fax: 94.442.10.12
email: asfedebi@asfedebi.eus
www.asfedebi.eus



9.5. Bigarren txanda amaitu ondoren, Hauteskunde Mahaiko presidentek ozen iragarriko du bozketa amaitu egingo dela, eta ez dio beste inori Batzar Nagusian sartzen utziko. Horren ondoren bertan dauden hautesleen artean oraindik bozkatu ez duen inor badagoen galdetuko du. Hala egin ez duten Elkarteko federazioen botoa onartuko du.

9.6. Jarraian batzordekideak, idazkariak eta, azkenik, Hauteskunde Mahaiko presidentek bozkatuko dute eta ondoren bozketa amaitutzat joko da. Hauteskunde Mahaiko kideek emandako botoak zenbatuko dituzte.

10. artikulua - ZENBAKETA

10.1. Bozketa amaitu ondoren, Hauteskunde Mahaiko presidentek amaitutzat joko du bozketa eta botoak zenbatzeari ekingo dio.

10.2. Banan-banan zenbatuko dira emandako boto baliiodunak, baliogabeak eta zuriak.

10.3. Boto baliogabetzat joko dira Hauteskunde Batzordeak ofizialki onetsitako ereduak ez bezalako gutun-azaletan edo txarteletan emandako botoak, baita gutun-azalik gabe edo hautagaitza ezberdinen txartel bat baino gehiago duten gutun-azaletan emandakoak ere. Gutun-azalek hautagaitza beraren txartel bat baino gehiago izanez gero, boto baliiodun bakar gisa zenbatuko dira. Baliogabeko bototzat joko dira txarteletako hautagaien izenak aldatu, gehitu, azpimarratu edo marratu diren edo kokapenaren hurrenkera aldatu den txarteletan emandako botoak eta baita edozein aldaketa izan duten txartelen bidez emandako botoak ere.

10.4. Boto zuritzat joko dira txartelik ez duten botoak edo zuriz emandako txartelak.

10.5. Boto-emaileen kopurua boto-emaileen txartelena izango da, baita boto baliiodun, baliogabe eta zuriena ere.

10.6. Bertaratutako kideen boto baliiodunen gehiengo soila lortzen duen hautagaitza izango da garaile.

10.7. Berdinketa gertatuz gero, bozketa errepikatuko da botoen kopuru handiena lortu duten bi hautagaitzen artean, bi baino ez badira ere.

10.8. Berriz ere berdinketa gertatuz gero, Elkartean antzinasunetik handiena duen federazioko presidentearen hautagaitza izango da garaile. Hala ere berdinketa hautsi ezean, zozketa bidez ebaztiko da.

10.9. Hauteskunde Mahaiko hiru kideek boto-emaileen eroldaren zerrenda egin eta plegu guztien ertzean eta idatzitako azken izenaren azpian sinatuko dute.

10.10. Horiek guztiak egin ondoren, idazkariak, bi aletan, akta egokia idatziko du egoki diren puntu guztiak betez. Akta presidentek, idazkariak eta batzordekideak sinatuko dute.



ASFEDEBI

**Bizkaiko Kirol
Federakundeen Elkartea
Asociación de Federaciones
Deportivas de Bizkaia**

KIROL ETXEA

Martin Barua Picaza, 27
48003 BILBAO

Tel: 94.442.39.60
Fax: 94.442.10.12
email: asfedebi@asfedebi.eus
www.asfedebi.eus



10.11. Horren ostean txartel baliodunak erre edo suntsitu egingo dira eta baliogabeak eta zuriak akta egokian gordeko dira.

10.12. Mahaiak hauteskundeak egin diren lokaleko ageriko leku batean hauteskundearen emaitzak jarriko ditu.

11. artikulua - HAUTESKUNDE AKTAK

11.1 Jarraian, Hauteskunde Mahaiak hauteskunde-agiriak prestatuko ditu. Agiri horiek gutun-azal ezberdinetan banatuko dira:

- a) Lehenengoak haxe izango du:
 - 1. Hauteskunde Mahaia osatzeko aktaren jatorrizko agiria
 - 2. Egiaztaturiko izendapenaren aktaren jatorrizko agiria
 - 3. Eskubidea baliatu zuten boto-emaileak aipatzeko erabilitako erroldak
 - 4. Baliorik gabeko bozketa-txartelak, hau da, txartel zuriak edo baliogabeak.
- b) Bigarrenak haxe izango du:
 - 1. Hauteskunde Mahaia osatzeko aktaren kopia
 - 2. Egiaztaturiko izendapenaren aktaren kopia

11.2. Agiriak prest izan ondoren, Hauteskunde Mahaiko kideek bi gutun-azalak emango dizkiote Hauteskunde Batzordeari. Horrek bigarren gutunzala Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko Elkartearen Erregistrora igorriko du aukeratutako hautagaitza behin betiko jakinarazten denean.

12. artikulua - HELEGITEAK ETA ERREKLAMAZIOAK

12.1. Erreklamazioak Hauteskunde Batzordean zuzenean aurkeztuko dira eta Elkartearen egoitzan jaso beharko dira lehenago aipaturiko epeetan, Hauteskunde Mahaian idatziz aurkeztu beharko diren botoen inguruko erreklamazioak edo aurkaratzeak izan ezik.

12.3. Hauteskunde Batzordearen erabakiak betearazleak dira eta erabaki horien aurka jartzen diren erreklamazioek ez dute erabakien eraginkortasuna murriztuko.

13. artikulua - XEDAPEN OROKORRAK INTERPRETAZIO IRIZPIDEAK

13.1. Hauteskunde Araudi honetan sor daitezkeen zalantzak Hauteskunde Batzordeak argituko ditu. Horrek Estatutuetan, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Legean ezarritakoarekin bat etorritik interpretatuko du araudia.



ASFEBEBI

**Bizkaiko Kirol
Federakundeen Elkartea
Asociación de Federaciones
Deportivas de Bizkaia**

KIROL ETXEA

Martin Barua Picaza, 27
48003 BILBAO

Tel: 94.442.39.60
Fax: 94.442.10.12
email: asfedebi@asfedebi.eus
www.asfedebi.eus



HARROBI

EUSKARAREN
AITORTZA-DIPLOMA
DIPLOMA DE RECONOCIMIENTO
DEL EUSKERA



2025
KUDEAKETA AURRERATUARI
DIPLOMA
A LA GESTION AVANZADA

13.2. Hauteskunde-agiriak aurkezteari dagokionez, agiriak ASFEBEBIren bulegoen (Kirol-Etxea Martin Barua Picaza kalea, 27, Bilbo) ohiko irekiera-orduetan aurkeztu ahal izango dira edo zuzenbidez onetsitako beste edozein modutara.

14. artikulua - Hautagaitza bakarra

14.1. Hautagaitza baliodun bakarra aurkeztuz gero, ez da hauteskundeak egiteko beharrik izango eta Hauteskunde Batzordeak hautaturikoa jakinaraziko du Batzar Nagusirako deialdia egin gabe.